



Mendaroko UDAL BULETINA

2026ko martxoa
(más abajo en castellano)



Aurkibidea

Mendarok aurrez-aurreko arreta izango du birgaitzea, alokairua eta energia-eraginkortasuna bultzatzeko herritarrentzat jarriko duen Debabarreneko Etxebizitza Bulegoarekin.....3-4

Etxebizitza Bulegoa, Mendaron egongo da hileko azken ostegunetan, 8:15etik 12:15era, Herriko Enparantza 10, behea helbidean

Agenda 2030 programaren baitan 25/26 ikasturteko 2. bisita egin zuten ikastolako ikasleek Udaletxera.....5

Programa honen baitan, Debegesak koordinatuta, ingurugiroa eta garapen jasangarriari lotutako proiektu bat garatzen dute ikasleek ikasturte bakoitzean

V. Txirristaka Saria martxan da.....6-7

Lanak aurkezteko epea 2026ko maiatzaren 22an amaituko da

Martxan da “Mendaron bizi, Mendaron erosi!” urteko I. kanpaina.....8

Bonua erositako, Mendaroko herritarrek 30€ kontsumitu ahal izango dituzte 20€ ordainduta

BIEMH Makina Herramientaren azoka bisitatu zuten eskualdeko alkateek Debegesaren eskutik.....9

Enpresa bakoitzak egiten duen lanaren eta gaur egun bizi duen egoeraren lehen eskuko informazioa jasotzeko aukera paregabea izan zuten

Herritarren laguntza eskatzen dugu.....10

Guztion artean, gure herria garbi eta atsegin mantentzea posible da

Udal brigadaren mantentze eta garbiketa lanak herriko hainbat gunetan...11

Udalak herritarren ongizatea eta espazio publikoen kalitatea hobetzeko konpromisoa berresten du

Martxoaren 6an Mendaroko San Agustin kulturgunean Landaola Sarien IX.edizioa ospatu zen.....12



Etxebizitza bulegoa

Birgaikuntza – Alokairua – Energia

Herriko Enparantza 10, behea
Hileko azken ostegunetan: 8:15-12:15
Hitzordua: 675873853 / etxebizitza@debegesa.eus



Mendarok aurrez-aurreko arreta izango du birgaitzea, alokairua eta energia-eraginkortasuna bultzatzeko herritarrentzat jarri duen Debabarreneko Etxebizitza Bulegoarekin

Etxebizitza Bulegoa, Mendaron egongo da hileko azken ostegunetan, 8:15etik 12:15era, Herriko Enparantza 10, behea helbidean

Debegesak, Debabarreneko udalekin elkarlanean, eskualdeko etxebizitza-bulego ibiltari bat jarri du martxan, herritarrei etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzeari eta alokairurako eta energia-eraginkortasunerako laguntzei buruzko informazioa, orientazioa eta laguntza emateko.

Etxebizitza Bulegoa, Mendaron egongo da hileko azken ostegunetan, 8:15etik 12:15era, Herriko Enparantza 10, behea helbidean. Arreta-gune berri horri esker, Mendaroko herritarrek aholkularitza pertsonalizatuko zerbitzua izango dute eskura, modu hurbil eta pertsonalizatuan.

Eskualdeko bulego ibiltariaren jarduera nagusiak

Zerbitzu berriaren funtzioen artean hauek nabarmentzen dira:

- Herritarrei informazioa, orientazioa eta laguntza ematea etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko Etxebideren laguntzen eskabideak aurkeztean, bai eta beste laguntza osagarri batzuei buruzko informazioa ere (EEE, udal-laguntzak, besteak beste), auzo-komunitateei nahiz pertsona partikularrei zuzendutakoak.

- Etxebizitza hutsen alokairua bultzatzea, Eusko Jaurlaritzak eta udalek alokairua sustatzeko dituzten programak ezagutaraziz eta zabalduz, bai jabeei, bai balizko errentariei.
- Gizarte-bonu elektrikoari eta termikoari buruzko informazioa eta aholkularitza, bai eta energia-horniduren (elektrizitatea, gasa...) fakturak eta tarifak optimizatzeari buruzkoa ere, energia-gastua murrizteko fakturak errazago uler daitezten.
- Energia berriztagarrien instalazioen eta birgaitze jasangarriko jardueren inguruan informatzea eta sentibilizatzea, etxebizitza-eredu eraginkorragoa eta jasangarriagoa sustatuz.

Arreta egokia bermatzeko, aldez aurretik hitzordua eskatzea gomendatzen da. Mendaroren kasuan, interesa dutenek 675 873 853 (Leire Azpiazu) telefono mugikorrera deitu beharko dute hitzordua hartzeko.

Esther Zarrabeitia Debegesako Hirigintza eta Birgaitze arduradunak azaldu duenez, “ekimen honen helburua da dauden laguntza publikoetarako sarbidea erraztea, alokairurantz bultzatzea eta birgaitze jasangarria sustatzea, etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa hobetzen lagunduz”. 1998az geroztik, Debegesak, Debarreneko Birgaitzeko Hirigintza Elkartea den aldetik, hiria birgaitzeko zerbitzu integrala eskaintzen du, herritarrak kontzientziatzeko eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeak dakartzan abantailez, eta auzo-komunitateei, jabeei edo inkilinoei eraikinak eta etxebizitzak birgaitzen laguntzeko. “Eskualdean indar handia duen zerbitzua da. 2025ean, esaterako, Debarreneko 1240 lagunek egin zituzten zaharberritze lanei buruzko kontsultak.”




Agenda 2030 programaren baitan 25/26 ikasturteko 2. bisita egin zuten ikastolako ikasleek Udaletxera

Programa honen baitan, Debegesak koordinatuta, ingurugiroa eta garapen jasangarriari lotutako proiektu bat garatzen dute ikasleek ikasturte bakoitzean

Aurtengorako aukeratutako gaia "Intsektuen hotelak" da. Biodibertsitatearen zaintza eta, bereziki, intsektuek ekosistemaren orekan duten paper garrantzitsua landuko da.

Debarrenan, proiektua eskualde mailan koordinatu eta dinamizatzen da, ikastetxe eta Ingurugelaz gain, Debegesaren eta zazpi udalen parte-hartzearekin. Ikasturte honetan "Intsektuen hotela" izeneko proiektua burutuko dute Mendaro ikastolako ikasle eta irakasleek, Debegesako teknikariak gidatuta eta udalaren laguntzarekin. Intsektuen hotelak intsektuek hibernatzeko eta ugaltzeko egindako eraikin berezi batzuk dira, intsektuak babesteko balio dutelarik. Intsektuek ekosistemen funtzionamenduan duten paper garrantzitsuaz jabetzeko balioko du proiektuak eta ikasturte amaieran udalarekin adostutako zenbait kokagunetan ezarriko dituzte eskolako hurrek.



V. Txirristaka Saria martxan da

Lanak aurkezteko epea 2026ko maiatzaren 22an amaituko da

Debarreneko gazteen artean bertsolaritza eta bertsoen idazketa sustatzeko helburuarekin, InLeike Kultur Elkarteak eta Mendaroko Udalak XXI. mendean hirugarrenez antolatu dute Txirristaka Saria bertsopaper lehiaketa. A kategorian Debarreneko egileek soilik hartu ahal izango dute parte; B eta C kategorietan, berriz, Euskal Herri osoko egileek parte hartu ahal izango dute.

Lehiaketa hiru kategoriatan banatzen da: A kategorian, 2012an edo ondoren jaiotakoentzat, eta 2 eta 4 bertso artean aurkeztu beharko dituzte; B kategorian, 2008 eta 2011 artean (biak barne) jaiotakoentzat, 4 eta 8 bertso arteko lanekin; eta C kategorian, 2007an edo lehenago jaiotakoentzat, 8 eta 12 bertso arteko lanekin, elkarren artean nolabaiteko batasuna izan beharko dutenak. A eta B kategorietan gehienez bi lan aurkeztu ahal izango dira pertsonako; C kategorian, aldiz, lan bakarra.

Aurkeztutako lanek gai eta neurri librea izango dute, euskaraz idatzita egon beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan, eta derrigorrez adierazi beharko da doinua. Horrez gain, oinarritzko kalitate irizpideak bete beharko dituzte.

Sariei dagokienez, A kategorian 100 euroko kultura-bonoa emango da, eta B kategorian 200 euroko saria. C kategorian, 1.000 euroko lehen saria emango da, baita 500 eta 150 euroko beste sari batzuk ere, eta 50 euroko kultura-bonoa. Kultura-bonoak txartel bidez emango dira, eta hilabeteko epea izango dute erabiltzeko. Diruzko sariei dagokien PFEZ atxikipena aplikatuko zaie.

Lanak aurkezteko epea 2026ko maiatzaren 22an amaituko da. Lanak postaz bidali ahal izango dira Mendaroko Udalera, oinarrietan zehaztutako gutun-azalen sistemari jarraituz, edo udalaren webgunean dagoen formularioaren bidez: <https://labur.eus/msxpajey>, bertan, datu pertsonalak, kategoria, izengoitia eta lanak erantsi beharko dira.

Epaimahaia bertsolaritzan adituak diren hiru lagunek osatuko dute: Amaia Agirre, Irune Basagoiti eta Mikel Arrillaga. Haien erabakia apelaezina izango da, eta sariak eman gabe utzi ahal izango dituzte lanek behar adinako kalitaterik ez badute. Sari-banaketa 2026ko ekainaren 19an egingo da.

Behin lehiaketa ebatzita, saritutako lanak ezin izango dira beste lehiaketetara aurkeztu ezta bestelako saririk jaso ere. Halaber, egileek baimena emango diote Mendaroko Udalari lanak urtebeteko epean argitaratzeko, eta C kategoriako lehen sariaren kasuan, baita lan horretan oinarritutako ikuskizun bat ekoizteko ere. Saritu gabeko lanak ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean jaso ahal izango dira udal bulegoetan; epe hori igarota, suntsitu ahal izango dira. Oinarriak ez betetzeak lehiaketatik kanpo geratzea ekarriko du.

**Mendaron bizi!
Mendaron erosi!**
Martxoaren 6tik apirilaren 6ra
Del 6 de marzo al 6 de abril

**20
30€**

**ORDAINDU 20€ ETA
KONTSUMITU 30€
Erosi zure bonoa!**

**Paga 20€ y consume 30€
¡Compra tu bono!**

**Parte hartzaileak
Participantes:**

Anton Harategia
Artfruit
Coviran
Farmazia
GalleTiak
Leire Arropa Denda
Lutximak
Mendaro Txokolateak
Morroskilo
Olatz Ileapaindegia
Roteta
Sonia Denda



Martxan da “Mendaron bizi, Mendaron erosi!” urteko I. kanpaina

Bonua erosita, Mendaroko herritarrek 30€ kontsumitu ahal izango dituzte 20€ ordainduta

Martxoaren 6tik apirilaren 6ra bitartean izango da "Mendaron bizi, Mendaron erosi!" urteko I. kanpaina. Bonua erosita, Mendaroko herritarrek 30€ kontsumitu ahal izango dituzte 20€ ordainduta. Hauek dira parte hartuko dute 12 dendak:

- Anton Harategia
- Artfruit
- Coviran
- Farmazia
- GalleTiak
- Leire Arropa Denda
- Lutximak
- Mendaroko Txokolateak
- Morroskilo
- Olatz Ileapaindegia
- Roteta
- Sonia Denda



BIEMH Makina Herramientaren azoka bisitatu zuten eskualdeko alkateek Debegesaren eskutik

Enpresa bakoitzak egiten duen lanaren eta gaur egun bizi duen egoeraren lehen eskuko informazioa jasotzeko aukera paregabea izan zuten

Debegesako ordezkariak batek, Barakaldoko BECen ospatu zen BIEMH Makina Herramienta azokaren 33. edizioa bisitatu zuen martxoaren 4an.

Debako, Soraluzeko eta Mendaroko alkateak izan ziren bertan, Amagoia Paskual, Debegesako gerente berriarekin batera, eta azoka antolatzen duen AFM klusterrak gidatuta eskualdeko enpresa desberdinen postuak bisitatu zituzten. Enpresa bakoitzak egiten duen lanaren eta gaur egun bizi duen egoeraren lehen eskuko informazioa jasotzeko aukera paregabea izan zuten.

Enez Ezenarro Mendaroko alkatearen hitzetan "oso bisita interesgarria izan da, bestek beste, gure eskualdean indartsuena den sektore ekonomiko honen egoera bertatik bertara ezagutu eta ekosistema horretako eragile garrantzitsuenekin harremanak sendotzeko balio izan duelako". Ezenarrok azpimarratu nahi izan zuen, udalek, Debegesaren bitartez, enpresa hauei ahal duten guztian laguntzeko prestutasuna adierazi nahi izan dietela.

Bide batez, Ezenarrok, Debegesak eskualdeko enpresak asessoratuz eta koordinatuz egiten duen lan garrantzitsua balioan jarri nahi izan zuen: "garrantzitsua da eskualdeko udalerrientzat Debegesa garapen agentziak indartzea, eskualdeko sare industrialari eutsi eta garaietara egokituz aurrera jarraitu dezaten".



Herritarren laguntza eskatzen dugu

Guztion artean, gure herria garbi eta atsegin mantentzea posible da

Azken aldian zakarrontzi batzuei erabilera desegokia ematen zaiela antzeman da. Zehazki, etxe hondakinen poltsak uzten dira paperontzietan, horretarako herriko puntu desberdinetan ezarrita dauden edukiontzia erabili beharrean.

Gogorarazi nahi dugu paperontziak kalean sortzen diren hondakin txikiak uzteko direla, eta ez etxeetako zaborra botatzeko. Etxeko hondakinak mankomunitateak horretarako jarritako bilketa selektiboko edukiontzietan utzi behar dira.

Jokabide honek kalte egiten dio gure inguruneari, garbitasunari eta bizikidetzari. Horregatik, dei egiten diegu herritar guztiei, eta bereziki jokabide hau daukatenei, arduraz jokatzeko eta arauak errespetatzeko. Guztion artean, gure herria garbi eta atsegin mantentzea posible da.

Eskerrik asko zuen lankidetzagatik.



Udal brigadaren mantentze eta garbiketa lanak herriko hainbat gunetan

Udalak herritarren ongizatea eta espazio publikoen kalitatea hobetzeko konpromisoa berresten du

Azkenaldian, Mendaroko Udal brigadak mantentze eta txukuntze lan ugari egin ditu herriko hainbat tokitan, espazio publikoen egoera hobetzeko helburuarekin.

Alde batetik, Azpilgoetako Ospaz azpiko aparkalekuan garbiketa eta txukuntze lanak burutu dira, eremuaren itxura eta erabilgarritasuna hobetuz. Era berean, brigadak lanean jardun du Plaza auzorako oinezko bidean eta San Antonio ermitaren inguruan, bide eta inguru horiek egoki mantentzeko.

Bestalde, frontoiko baranda margotu da, instalazioaren itxura berrituz eta bere kontserbazioa bermatuz. Horrez gain, udal brigadak poligonoetako kunetak garbitu ditu, eurite garaiei begira drainatze egokia ziurtatzeko.

Lanak jarraipena izan dute beste hainbat puntutan ere: Trinitadeko estankearen garbiketa egin da, eta baita tunelaren inguruko eremuena ere.

Udalak herritarren ongizatea eta espazio publikoen kalitatea hobetzeko konpromisoa berresten du, eta horretarako mantentze-lan hauek egiten jarraituko du.



Martxoaren 6an Mendaroko San Agustin kulturgunean Landaola Sarien IX.edizioa ospatu zen

Honako proiektuak izan ziren sarituak:

- Erakunde pribatuen atalean: BIZI IRAUN ELKARTEA.
- Erakunde publikoen atalean: ITSASO HERRIA “Sindikatoa” Herri Denda
- Landa eremuko emakumeen saria: MAIATANE BERISTAIN.
- Urteetako ibilbidearen saria: ALDABA ZAHAR ELKARTEA.

Zorionak irabazleei eta eskerrik asko bertaratu zineten guztioi!



BOLETÍN MUNICIPAL

de Mendaro

Marzo de 2026

Índice

Mendaro contará con atención presencial para el impulso de la rehabilitación, el alquiler y la eficiencia energética a la ciudadanía con la Oficina de Vivienda de Debarrena.....15-16

La oficina, ofrecerá atención presencial en Mendaro los últimos jueves de cada mes, de 8:15 a 12:15 en Herriko Enparantza 10, behea

En el marco de la Agenda 2030 los niños de la ikastola realizaron su segunda visita del curso al Ayuntamiento17

Coordinado por Debegesa, los alumnos desarrollan cada curso un proyecto relacionado con el medio ambiente y el desarrollo sostenible

En marcha el V.Txirristaka Saria.....18-19

El plazo de presentación de trabajos finalizará el 22 de mayo de 2026

La I. campaña del año "Mendaron bizi, Mendaron erosi" ya está en marcha.....20

Con la compra del bono, los vecinos de Mendaro podrán consumir 30 € pagando 20

Los alcaldes de la comarca visitaron la feria de la Máquina Herramienta BIEMH de la mano de Debegesa.....21

Tuvieron una oportunidad única de recibir información de primera mano del trabajo que realiza cada empresa y de la situación que vive en la actualidad

Solicitamos la colaboración ciudadana.....22

Entre todos y todas podemos mantener nuestro municipio limpio y agradable

Trabajos de mantenimiento y limpieza de la brigada municipal en distintos puntos del municipio.....23

El Ayuntamiento reafirma su compromiso con el bienestar de la ciudadanía y la mejora de los espacios públicos

El 6 de marzo se celebró en el centro cultural San Agustín de Mendaro la IX edición de los Premios Landaola.....24



Etxebizitza bulegoa **Birgaikuntza – Alokairua – Energia**

Herriko Enparantza 10. behea
Hileko azken ostegunetan: 8:15-12:15
Hitzordua: 675873853 / etxebizitza@debegesa.eus



Mendaro contará con atención presencial para el impulso de la rehabilitación, el alquiler y la eficiencia energética a la ciudadanía con la Oficina de Vivienda de Debabarrena

La oficina, ofrecerá atención presencial en Mendaro los últimos jueves de cada mes, de 8:15 a 12:15 en Herriko Enparantza 10, behea

El Ayuntamiento de Mendaro, en colaboración con Debegesa y el resto de Ayuntamientos de la comarca, se suma a la puesta en marcha de la oficina comarcal de vivienda de Debabarrena, un servicio que tiene como el objetivo acercar a la ciudadanía información, orientación y apoyo en materia de rehabilitación de viviendas y edificios, información sobre ayudas al alquiler y sobre eficiencia energética.

La oficina, ofrecerá atención presencial en Mendaro los últimos jueves de cada mes, de 8:15 a 12:15 en Herriko Enparantza 10, behea. Este nuevo punto de atención permitirá a las vecinas y vecinos de Mendaro acceder de forma cercana y personalizada a un servicio de asesoramiento personalizado.

Principales actuaciones de la oficina comarcal itinerante

Entre las funciones del nuevo servicio destacan:

- Información, orientación y apoyo a la ciudadanía en la presentación y tramitación de solicitudes de ayudas a la rehabilitación de viviendas y edificios correspondientes a las ayudas de Etxebide, así como información sobre otras

ayudas complementarias (EVE, ayudas municipales, entre otras), dirigidas tanto a comunidades vecinales como a personas particulares.

- Impulso del alquiler de viviendas vacías, mediante la información y difusión de los programas de promoción del alquiler del Gobierno Vasco y municipales, tanto a personas propietarias como a posibles arrendatarias.
- Información y asesoramiento sobre el bono social eléctrico y térmico, así como sobre la optimización de facturas y tarifas de suministros energéticos (electricidad, gas...), facilitando la comprensión de las facturas con el objetivo de reducir el gasto energético.
- Difusión y sensibilización en materia de instalación de energías renovables y actuaciones de rehabilitación sostenible, fomentando un modelo de vivienda más eficiente y sostenible, sirviendo de enlace con la Oficina Virtual de Energía de Debegesa.

Para garantizar una atención adecuada, se recomienda solicitar cita previa. En el caso de Mendaro, las personas interesadas deberán llamar al teléfono móvil 675 873 853 (Leire Azpiazu) para concertar su cita.

Según explica Esther Zarrabeitia, responsable de Urbanismo y Rehabilitación de Debegesa, “esta iniciativa busca facilitar el acceso a las ayudas públicas existentes, tanto para la rehabilitación como para impulsar hacia el alquiler y promover la rehabilitación sostenible, contribuyendo a mejorar la eficiencia energética de los hogares”. Desde 1998, Debegesa, como Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Debarrena, ofrece un servicio integral de rehabilitación urbana para impulsar la rehabilitación concienciar a la ciudadanía sobre las ventajas que aporta la rehabilitación de los edificios y viviendas y ayudar a las comunidades vecinales, así como a las personas propietarias o inquilinas a rehabilitar sus edificios y viviendas. “Es un servicio con mucho arraigo en la comarca. En 2025, por ejemplo, se recibieron 1240 consultas sobre obras de rehabilitación”.




En el marco de la Agenda 2030 los niños de la ikastola realizaron su segunda visita del curso al Ayuntamiento

Coordinado por Debegesa, los alumnos desarrollan cada curso un proyecto relacionado con el medio ambiente y el desarrollo sostenible

El tema elegido para este año es "Hoteles de insectos". Se trabajará el cuidado de la biodiversidad y, especialmente, el papel importante de los insectos en el equilibrio del ecosistema.

En Debarrena, el proyecto se coordina y dinamiza a nivel comarcal, además de los centros escolares e Ingurugela, con la participación de Debegesa y siete ayuntamientos. Este curso los alumnos y profesores de la ikastola de Mendaro llevarán a cabo el proyecto denominado "Hotel de insectos", liderado por el técnico de Debegesa y con la colaboración del ayuntamiento. Los hoteles de insectos son una serie de edificios singulares construidos por insectos para hibernar y reproducirse, que sirven para proteger a los insectos. El proyecto servirá para tomar conciencia del importante papel de los insectos en el funcionamiento de los ecosistemas y será implantado por los niños de la escuela en algunos enclaves acordados con el ayuntamiento a final de curso.



En marcha el V.Txirristaka Saria

El plazo de presentación de trabajos finalizará el 22 de mayo de 2026

Con el objetivo de fomentar la bertsolaritza y la escritura de bertsos entre la juventud de Debabarrena, InLeike Kultur Elkarte y el Ayuntamiento de Mendaro han organizado por tercera vez en el siglo XXI el concurso de bertsopaper "Txirristaka Saria". En la categoría A podrán participar únicamente autores y autoras de Debabarrena, mientras que en las categorías B y C la participación estará abierta a toda Euskal Herria.

El certamen se divide en tres categorías: la categoría A, dirigida a personas nacidas en 2012 o posteriormente, que deberán presentar entre 2 y 4 versos; la categoría B, para nacidos y nacidas entre 2008 y 2011 (ambos inclusive), con trabajos de entre 4 y 8 versos; y la categoría C, para personas nacidas en 2007 o antes, que deberán presentar entre 8 y 12 versos que mantengan cierta unidad. En las categorías A y B se podrán presentar un máximo de dos trabajos por persona, mientras que en la categoría C solo se admitirá uno.

Los trabajos deberán ser de temática y métrica libres, estar escritos en euskera, ser originales e inéditos, e indicar obligatoriamente la melodía. Además, deberán cumplir unos criterios básicos de calidad.

En cuanto a los premios, la categoría A contará con un bono cultural de 100 euros y la categoría B con un premio de 200 euros. En la categoría C se otorgará un primer premio de 1.000 euros, así como otros premios de 500 y 150 euros, además de un bono cultural de 50 euros. Los bonos culturales se entregarán en formato tarjeta, con un plazo de un mes para su utilización. A los premios en metálico se les aplicará la retención correspondiente del IRPF.

El plazo de presentación de trabajos finalizará el 22 de mayo de 2026. Las obras podrán enviarse por correo postal al Ayuntamiento de Mendaro, siguiendo el sistema de sobres indicado en las bases, o bien a través del formulario habilitado en la página web municipal: <https://labur.eus/msxpajey> , donde deberán adjuntarse los datos personales, la categoría, el seudónimo y los trabajos.

El jurado estará compuesto por tres personas expertas en bertsolaritza: Amaia Agirre, Irune Basagoiti y Mikel Arrillaga. Su decisión será inapelable y podrán declarar desiertos los premios si consideran que los trabajos no alcanzan la calidad suficiente. La entrega de premios tendrá lugar el 19 de junio de 2026.

Una vez resuelto el concurso, las obras premiadas no podrán presentarse a otros certámenes ni recibir otros galardones. Asimismo, sus autores y autoras autorizarán al Ayuntamiento de Mendaro a publicarlas en el plazo de un año, y, en el caso del primer premio de la categoría C, también a producir un espectáculo basado en la obra. Las obras no premiadas podrán recogerse en las dependencias municipales durante el mes siguiente a la publicación del fallo; transcurrido ese plazo, podrán ser destruidas. El incumplimiento de las bases supondrá la exclusión del concurso.

**Mendaron bizi!
Mendaron erosi!**
Martxoaren 6tik apirilaren 6ra
Del 6 de marzo al 6 de abril

20
30€

**ORDAINDU 20€ ETA
KONTSUMITU 30€
Erosi zure bonoa!**

**Paga 20€ y consume 30€
¡Compra tu bono!**

**Parte hartzaileak
Participantes:**

Anton Harategia
Artfruit
Coviran
Farmazia
GalleTiak
Leire Arropa Denda
Lutximak
Mendaro Txokolateak
Morroskilo
Olatz Ileapaindegia
Roteta
Sonia Denda



La I. campaña del año "Mendaron bizi, Mendaron erosi" ya está en marcha

Con la compra del bono, los vecinos de Mendaro podrán consumir 30 € pagando 20

La I. campaña del año "Mendaron bizi, Mendaron erosi" será del 6 de marzo al 6 de abril. Con la compra del bono, los vecinos de Mendaro podrán consumir 30 € pagando 20. Estos son los 12 comercios participantes:

- Anton Harategia
- Artfruit
- Coviran
- Farmazia
- GalleTiak
- Leire Arropa Denda
- Lutximak
- Mendaroko Txokolateak
- Morroskilo
- Olatz Ileapaindegia
- Roteta
- Sonia Denda



Los alcaldes de la comarca visitaron la feria de la Máquina Herramienta BIEMH de la mano de Debegesa

Tuvieron una oportunidad única de recibir información de primera mano del trabajo que realiza cada empresa y de la situación que vive en la actualidad

Una delegación de Debegesa visitó el pasado 4 de marzo la 33 edición de BIEMH Máquina Herramienta que se celebró en el BEC de Barakaldo. Asistieron los alcaldes de Deba, Soraluze y Mendaro, junto a Amagoia Paskual, nueva gerente de Debegesa, que guiados por el cluster AFM, organizador de la feria, visitaron los puestos de las diferentes empresas de la comarca. Tuvieron una oportunidad única de recibir información de primera mano del trabajo que realiza cada empresa y de la situación que vive en la actualidad.

En palabras del alcalde de Mendaro, Enetz Ezenarro, "ha sido una visita muy interesante, entre otras cosas, porque ha servido para conocer de primera mano la situación de este sector económico, el más fuerte de nuestra comarca, y fortalecer las relaciones con los actores más importantes de este ecosistema". Ezenarro quiso destacar que los ayuntamientos, a través de Debegesa, han querido trasladar a estas empresas su disposición a colaborar en todo lo que puedan.

Por otro lado, Ezenarro ha querido poner en valor la importante labor que realiza Debegesa asesorando y coordinando a las empresas de la comarca: "Es importante para los municipios de la comarca reforzar las agencias de desarrollo Debegesa para que mantengan el tejido industrial de la comarca y sigan avanzando adaptándose a los tiempos".



Solicitamos la colaboración ciudadana

Entre todos y todas podemos mantener nuestro municipio limpio y agradable

En las últimas semanas se ha detectado un uso inadecuado de algunas papeleras del municipio. Concretamente, se están depositando bolsas de basura doméstica en la papeleras, en lugar de utilizar los contenedores habilitados para ello.

Recordamos que las papeleras están destinadas a residuos pequeños generados en la vía pública, y no a residuos domésticos. Los residuos del hogar deben depositarse en los contenedores de recogida selectiva que la mancomunidad ha dispuesto en los alrededores.

Este comportamiento perjudica la limpieza, el entorno y la convivencia vecinal. Por ello, hacemos un llamamiento al civismo y al respeto de toda la ciudadanía, y especialmente a las personas responsables de estas acciones, para que cesen en esta práctica y cumplan con las normas. Entre todos y todas podemos mantener nuestro municipio limpio y agradable.

Gracias por su colaboración.



Trabajos de mantenimiento y limpieza de la brigada municipal en distintos puntos del municipio

El Ayuntamiento reafirma su compromiso con el bienestar de la ciudadanía y la mejora de los espacios públicos

En los últimos días, la brigada municipal de Mendaro ha llevado a cabo diversos trabajos de mantenimiento y limpieza en diferentes zonas del municipio, con el objetivo de mejorar el estado de los espacios públicos.

Por un lado, se han realizado labores de limpieza y acondicionamiento en el aparcamiento situado bajo Ospaz, en Azpilgoeta, mejorando así su aspecto y funcionalidad. Asimismo, la brigada ha trabajado en el camino peatonal hacia el barrio Plaza y en los alrededores de la ermita de San Antonio, con el fin de mantener estos espacios en buen estado.

Por otro lado, se ha procedido a pintar la barandilla del frontón, renovando la imagen de la instalación y garantizando su conservación. Además, la brigada municipal ha limpiado las cunetas de los polígonos, asegurando un correcto drenaje de cara a posibles lluvias.

Los trabajos también se han extendido a otros puntos: se ha limpiado el estanque de Trinidad, así como los alrededores del túnel.

El Ayuntamiento reafirma su compromiso con el bienestar de la ciudadanía y la mejora de los espacios públicos, y continuará desarrollando este tipo de labores de mantenimiento.



El 6 de marzo se celebró en el centro cultural San Agustín de Mendaro la IX edición de los Premios Landaola

Los proyectos premiados fueron:

-En el apartado de entidades privadas: BIZI IRAUN ELKARTEA.

-En el apartado de instituciones públicas: ITSASO HERRIA; Herri Denda "Sindikatoa"

-Premio de las mujeres rurales: MAIATANE BERISTAIN.

-Premio a años de trayectoria: ALDABA ZAHAR ELKARTEA.

¡Enhorabuena a los ganadores y gracias a todos los que acudisteis!